

## **KONTROL MOZIOA**

### **DONOSTIAKO OROIMEN HISTORIKOAREN EGUNA DELA-ETA**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko irailaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da

## **JUSTIFIKAZIOA**

Harriduraz jakin genuen, lehenengo komunikabideen bitartez, eta ondoren Udal Gobernuak bidali zuen gonbidapenaren bitartez, Udalak irailaren 13an oroimen ekitaldiak antolatu zituela: goizean “Memoria Bizirik” erakusketaren irekiera Aieteko Kultur Etxean eta arratsaldean “Irailak 13: argia itzali” ekitaldi artistikoa udalbatza aretoan. Harriduraz, ekimenok Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialarekin kontaktu gabe antolatu zirelako. Izan ere, ekainaren 15eko Oroimen Historikoaren Kontseiluaren bilkuran, elkarteek proposatutako ildo eta ekimenen artean, irailaren 13a Donostiako Memoria Historikoaren eguna izendatzea onartu zen gehiengoz, eta, ondorioz, dagozkion ekitaldiak antolatzea.

Aipatutakoei buruz Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean interpelatzerakoan, alkateak Bozeramaileen Batzordean informazioa eman ez izanaren arrazoiez aritu zen, denboran edo eta egutegian oinarri, Oroimen Historikoaren Kontseiluari inongo erreferentziarik egin gabe.

Hiriko aitortza eta ezagutzarako, herritarren parte hartze eta memoriarako, Donostiako Oroimen Historikorako Egunaren harira, ez zaigu bidezko jokaera iruditzen Udal Gobernu batentzat, gardentasunaren, Gobernu Onaren eta partaidetzaren ikuspuntutik, hala jokatzeari.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

**KONTROL MOZIOA:**

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Irailak 13 - Donostiako Oroimen Historikoaren Egunaren oroitza ekitaldiak, denboraz eta modu parte-hartzailean, Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialeko kontseilari guztiekin elkarlanean antola ditzan.

Donostian, 2016ko irailaren 23an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia